

Ufada zaharrari, askatasun haizea



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Zinematik atera naiz. Asier Altunaren *Karmele* filma ikusi berri dut nire herriko aretoan. Gezurra dirudi, baina pantaila handikoak nire aiton-amonak izan zitezkeen. Beti nahasten zaizkit tripak hurbilegi harrapatzen nauten pelikulekin. Guretzat fikzioa izan litekeena, egunerokoan idazteko istorioak izan ziren gure aiton-amonentzat. Gurasoentzat ere bai. Fuerte da.

Urteek aurrera egin dute eta eraikin batzuetako markek jarraitzen duten arren, eraitsitako zutabeak berreraiki dituzte Zornotzan, Durangon, Gernikan eta Otxandion. Errauts bilakatu ziren etxebizitzetan bizitza berriek arnasten dute, eta udaletxeetako argazki zaharrek beste herri batekoak dirudite orain. Falangistak izan ziren asko etxejabe handiak edo dirudunak dira orain herrian, eta gure aitonek lan egiten zuten fabrikak itxi egin dituzte. Emakumeen kartzela zena eskola kristaua da orain. Haize berriak ufutzen gaituela dirudi, ezta? Nola aldatzen diren gauzak, kamarada.

Gezurra dirudi, bai. Azaroan 50 urte beteko dira Franco diktadorea hil zenetik; amak, gaztea zela, "*Espanoles: Franco ha muerto*" entzun zuenetik; eta ikurrina baserriko balkoian jarri zutenetik. Horrela izan zela kontatu zidaten eta baserriko balkoi bernizatua irudikatzen dut.

Erre berri ditugun piperrak daude orain ikurrina jarri zuten tokian. Gezurra dirudi, mende erdi jadanik, eta aldi berean, mendi erdi baino ez. Haize berriak ufutzen gaituela dirudi, baina usain berbera dakar azkenaldian.

Kontatu nahiko nioke amamari munda zaharraren zantzu batzuk lotsarik gabe bistaratzen direla gurean. Kontatu nahiko nioke kaleetatik kendu nahi izan zituztela Franco diktadorea hil bezperetan fusilatu zituzten gazte horien aurpegiak, batzuen memoriak eta minak ez omen direlako zilegi edo. Joan den urriaren 12an, bere garaiko falangisten seme-alabak, erregimen berberaren oinordekoak, Gasteizera etorri zirela, plaza publiko batean eskolan kantatzera derrigortzen zieten kantu hura kantatzera. Kantu berbera kantatzera. Hotzikarak eragiten dizkit, zuri ez?

Gezurra dirudi, amama, baina, ustezko haize berrien garaiotan, bada egun hartakoa ekidin ezina zela dioenik. Nola-bait, haiek gurean izatea ulertu eta onartu beharko bagenu bezala, 50 urte eta gero ere bai. Gezurra dirudi, baina ez da gezurra. Ez da *Karmele* pantaila handian.

Nola aldatu diren gauzak, kamarada, beste batzuk ezer ez aldatzeko. Haize berriak ufutzen gaituela dirudi. Dirudi. Altxa dezagun, bada, askatasun haizea. ●

Pelicot



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Pelicot irakurrita, denoi datorkigu emakume edadetu horren aurpegia; ile laranja iluna, sudur-harro txikia, eguzki betaurrekoak eta duintasunez eta ausardiaz jantzia. Gisèle du izena, Pelicot abizena.

Baina munduko leku askotan gertatzen den bezala, deitura hori ez da bere jaiotzetikoa, ezkondukoan hartutakoa baizik. Bai, senarrarena, urte luzez drogatu, bortxatu, beste batzuek bortxa zezaten emaztea eskaini, eta bortxaketa horiek beroriek grabatu zituenarena.

Eta Gisèlek aldean daroa izenari itsatsita bere borroeroaren abizena, nahiz eta iaz dibortziatu ziren. Pelicot betiko.

Marikita Tanburin idazle, irakasle eta feminista baigorriarrari ikasi nion *Bi saiakera emazteen izenean* liburu elebidunean, Frantziako Estatuko legeak ez dituela emakumeak behartzen senarraren abizena hartzera; ohitura hutsa dela, baina andre askok ez dakitela, eta dakitenek hautu hori egiten dutela familiarengatik, nahiago dutelako haurren abizen bera izatea.

Beraz, Gisèle bere borroeroaren abizenaz zamatuta. 50 urtean izandako izena ere bada, nola aldatu orain? Betiko marka bikoitza: jasandakoa eta familia izena. ●